



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

### **“TOLOSALDEA SAHARAREKIN”**

“Tolosaldea Sahararekin” elkarteko kideek Saharar herriarekiko elkartasuna lortu eta errefuxatu kanpamentuetara ahal den laguntza gehiena eramateko helburua dute. Horretarako bide bat janari bilketa egitearena da.

Janari bilketa hau abendu eta urtarrilean gauzatzen da. Larraulen janari bilketa hau honela egingo da:

- **BILKETA EGITEKO EPEA:** 2017ko urtarrilaren 10etik urtarrilaren 27ra
- **BILGUNEA:** Larraulgo Udaletxean, bulego orduetan.
- **BILDU BEHARREKO JANARI ETA MATERIALA:**  
Lekaleak, hegaluzea oliotan, sardiñak oliotan, azukrea, arroza, pasta, olioak, konpresak eta helduentzako eta haurrentzat pixaiohalak.

Beste urteetan bezala, janari bilketarekin batera eskola materiala jasoko da (koadernoak, arkatzak, ezeztekoak, txorroskiloak, ...).

Besterik gabe, aurrez zuen laguntza eskertuaz, agurtzen zaituztegu.

Larraulen, 2017ko urtarrilaren 10ean.

Alkateak